



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 22a

26. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A :

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00012. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ondare Historikoa-  
ren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotu ditzan. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-24/MOC-00020. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Droga-mendekotasu-  
naren III. Foru Planaren amaierako ebaluazioa egin dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-24/MOC-00023. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako eta  
abeltzaintzako sektorearen beharrianak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organi-  
zazioekin hitz eginda. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-24/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiruko mahai bat ezar  
dezan sare itunduko ikastetxeetako negoziaketarako, patronalen eta sare horretako langileak ordezkatzan  
dituzten sindikatuen parte-hartzearekin. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- 11-24/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa osoan,  
hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adie-  
razleen sistema abian jar dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- 11-24/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gober-  
nuaren eta Europako erakundeen aitzinean salatu ditzan Europako Itun Berdea nahiz itun horrek Espainia-  
ko ekonomiari begira izan dituen ondorio larriak. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-24/MOC-00025. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea alde-  
teko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-24/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herentzia publiko  
unibertsala sor dezan Nafarroan. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-24/MOC-00013. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan hitzarmen  
bat sinatzea Gobernuaren Ordezkaritzaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren bera-  
ren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko eta, behin horiek eginda, horiek  
jazarri eta ikertzeko urratsak. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordeak ezetsi du (6. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- 11-23/PES-00168. Galdera, Nafarroan ez ikasle ez langile ez diren gazteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-23/PES-00169. Galdera, errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen osasun-egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00171. Galdera, jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00172. Galdera, Iruñean emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena izanen lukeen bigarren epaitegi bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00173. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guzteei buruz erabiltzaileek egiten duten balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00174. Galdera, garraio publikoaren emakida berrietan bidaiari kopurua igotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00175. Galdera, ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/MOC-00012. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ondare Historikoaren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotu ditzan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko otsailaren 15ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ondare Historikoaren kontserbazio prebentiborako materialak gaurkotu ditzan. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du "Gure ondarea erabili, mantendu eta kontserbatzeko

gida" eta kultur ondareko lekuak garbitzeko eta desinfektatzeko gomendioak gaurkotu ditzan, jasangarritasun-irizpideak ezarrita, toki-entitateentzako material didaktiko berriekin, eta kontserbazio prebentiboaren dibulgazio-kanpaina bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gida aurten eguneratzeko konpromisoa har dezan”.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/MOC-00020. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Droga-mendekotasunaren III. Foru Planaren amaierako ebaluazioa egin dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko otsailaren 15ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Droga-mendekotasunaren III. Foru Planaren amaierako ebaluazioa egin dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Droga-mendekotasunari buruzko III. Foru Planaren ebaluazioa gehienez ere sei hilabeteko epean egin dezan.

2. Droga-mendekotasunari buruzko foru plan berri bat presta dezan, arlo horretako adituekin

eta elkarteekin lankidetzan, osasun arlokoak nahiz hezkuntza edo gizarte zerbitzuak izan.

3. Foru plan berrian portaera-adikzioen gaineko ikuspuntua jaso dezan.

4. Planaren koordinatzailearen figura berreskura dezan, figura hori funtsezkoa baita planaren garapenean lidergoa eta zeharkakotasuna bermatzeko.

5. Planaren koordinazio eta jarraipen egiturak indartu ditzan.

6. Droga-mendekotasunari buruzko IV. Foru Plana gehienez ere urtebeteko epean aurkez dezan Nafarroako Parlamentuan”.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00023. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen beharrianak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organizazioekin hitz eginda**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko otsailaren 15ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen beharrianak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan,

nekazaritzako organizazioekin hitz eginda. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektorearen beharrianak bilduko dituen talka-plan bat taxutu dezan, nekazaritzako organizazioekin hitz eginda”.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00021. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiruko mahai bat ezar dezan sare itunduko ikastetxeetako negoziaketarako, patronalen eta sare horretako langileak ordezkatzen dituzten sindikatuen parte-hartzearekin**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, ezetsi du EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hiruko mahai bat ezar dezan sare itunduko ikastetxeetako negoziaketarako, patronalen eta sare horretako

ko langileak ordezkatzen dituzten sindikatuen parte-hartzearekin. Mozioa 2024ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-24/MOC-00022. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa osoan, hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa osoan, hizkuntza-eremuetan eta eskualdeetan euskarazko zerbitzuei dagokienez dagoen

eskaerari buruzko adierazleen sistema abian jar dezan. Mozioa 2024ko otsailaren 13ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00024. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Espainiako Gobernuaren eta Europako erakundeen ai- tzinean salatu ditzan Europako Itun Berdea nahiz itun horrek Espai- niako ekonomiari begira izan dituen ondorio larriak**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, ezetsi du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuaren eta Europako erakundeen aitzinean salatu ditzan

Europako Itun Berdea nahiz itun horrek Espainiako ekonomiari begira izan dituen ondorio larriak. Mozioa 2024ko otsailaren 13ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00025. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita lehen sektorea aldezteko neurriak har ditzan**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorea aldezteko neu-

riak har ditzan. Mozioa 2024ko otsailaren 13ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-24/MOC-00026. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita herentzia publiko unibertsala sor dezan Nafarroan**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, ezetsi du Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita herentzia publiko

unibertsala sor dezan Nafarroan. Mozioa 2024ko otsailaren 13ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-24/MOC-00013. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-  
tzen da susta dezan hitzarmen bat sinatzea Gobernuaren Ordezkarit-  
zaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren bera-  
ren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko  
eta, behin horiek eginda, horiek jazarri eta ikertzeko urratsak**

*BARNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK EZETSI DU*

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordeak, 2024ko otsailaren 14an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaetzen da susta dezan hitzarmen bat sinatzea Gobernuaren Ordezkaritzaren, tokiko polizia duten udalen eta Nafarroako Gobernuaren

beraren artean, zeinaren bidez koordinatuko baitira delituak prebenitzeko eta, behin horiek eginda, horiek jazarri eta ikertzeko urratsak. Mozioa 2024ko urtarrilaren 30eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**F saila:**  
**GALDERAK**

## 11-23/PES-00168. Galdera, Nafarroan ez ikasle ez langile ez diren gazteei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan ez ikasle ez langile ez diren gazteei buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.


Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak PES-11-23/00168 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Nafarroako Gazteria Adierazleen azken txostenean (Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2022ko uztailan argitaratu zuen) jaso egiten da % 12,4an dagoela (2021eko datuak), eta honako hau dela banakapena 2013tik:



*Fuente: Eurydice España. RedIE (Red Española de información sobre educación)*

Ikasten edota lanean ez dauden gazteen portzentajea arian-arian txikitzen joan da 2017. urteaz geroztik, nola Nafarroan (2015ean eta 2016an izandako igoera txiki bat izan ezik) hala Espainian. 2020. urtean, pandemiaren ondorioz, Nafarroan nabarmen egin zuen gora ikasten edota lanean ez zeuden gazteen portzentajeak. Alabaina, 2021ean berriz ere egin du behera, nahiz eta pandemia aurreko zifren gainetik jarraitu. Urte guztietan zehar, 2013az geroztik, ikasten edota lanean ez dauden gazteen portzentajea txikiagoa

da Nafarroan Estatu osoan baino, nahiz eta azken urteotan alde hori nabarmen murriztu den.

Bestalde, Nafarroako Gazteriaren Institutuan aldiari-aldiari azterlanak argitaratzen dira, eta horien artean jasotzen dira Nafarroako gazteen enpleguari eta hezkuntzari buruzko datuak, hala nola Nafarroako Gazteriaren Inkestan eta Nafarroako Gazteen Emantzipazioari buruzko inkestan. Aukera dago institutuaren webgunean beroriek kontsultatzeko, hemen:

<https://www.juventudnavarra.es/eu/gazte-behatokia>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

---

## **11-23/PES-00169. Galdera, errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen osasun-egoerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen osasun-egoerari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-23/PES-00169 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau: "lortu al da errenta bermatua jasotzen duten pertsonen eta gainerako herritarren arteko aldea

murriztea depresioari, antsietateari, nahasmendu mental larriari, obesitate-tasa edo gainpisuari eta diabetesari dagokienez? Xehakatu datuak alderdi horietako bakoitzaren, sexuaren, murrizketa-porzentajeen eta 2015etik aitzinako urteen arabera". Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Azaroaren amaiera aldera Nafarroako Osasunaren determinatzaileei buruzko txostena aurkeztuko zaio publikoari, eta bertan aztertzen dira galderan hizpide diren gaiak. Erantzuna txosten hori publikoari aurkeztu eta gerorako utziko dugu eskatutako datuak osorik eman ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos



## **11-23/PES-00171. Galdera, jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Legea betetzeari buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Azaroaren 30a

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00171). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Legea betetzeari buruz eman dion informazioa:

2022ko uztailaren 15ean, Jokoari buruzko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen 21/2022 Foru Legea sartu zen indarrean. Legeak, besteak beste, artikulua berri bat jaso zuen, ostalaritzako establezimenduetan edo antzekoetan apustueta terminalak arautzeko. 26 ter artikulua hiru garren apartatuak hemezortzi hilabeteko egokitzapen aldi bat ezartzen du, ostalaritzako establezimenduetan instalatuta dauden makinek kontrol tekniko sistemak eduki ditzaten, horietarako sarbidearen kontrola bermatu ahal izateko.

Era berean, adierazi da aipaturiko 26 ter artikulua betetzeko beharrezkoak direla hainbat ekintza:

a) Arautegi aldaketa foru lege honek ezarritakoa erregelamendu bidez garatzeko.

b) Administrazioak egiten duen garapen teknologikoa Nafarroako Gobernuak Nafarroako Jokoa sartzeko debekuen erregistroan sartzen diren pertsonen informazioa eman ahal diezaien apustuen enpresei.

c) Apustuen enpresen garapen teknologikoa ostalaritzan gaur egun instalatutako makinek aldaketa normatiboan ezarritako baldintza berriak bete ditzaten.

Nafarroan Jokoa eta Apustuen Erregelamendu Orokorren testu berri baten zirriborroa idazten ari dira, eskaturiko aldaketa normatibo guztiak jaso ditzan eta kasu batzuetan 1990ekoak diren arautegiak egokitu ditzan. Dagoeneko argitaratu da lehenengo testu bat eta alegazioak jaso dira, apustueta makinen betekizunei dagokien xedapen tekniko espezifikoak jasoko dituen testu bat.

Nafarroako Jokoa erregelamendu proiektu hau nahiko garrantzitsua da eta ez da utzi behar atzean gerora jardura hori garatzen duten enpresentzat zein erabiltzaileentzat oztopoak edo disfuntzioak sor ditzakeen alderdirik, gizarteko sektorerik zaurgarrien babesaren ikuspuntutik betiere.

Bestalde, prozesu normatiboarekin batera, 2022ko abuztuan lanak abiarazi ziren beharrezko garapen teknologikoan aurrera egiteko, ostalaritzan instalatutako joko lokalak eta apustueta makinak Jokoa sartzeko debekuen erregistroa lotzea ahalbidetu dezan. Pasa den irailean softwarea garatzeko lanak abiarazi ziren. Ildo horretatik, enpresek Nafarroako Gobernuaren sistemak Jokoa sartzeko debekuen erregistroko datuetara lotzeko eskaintzen dituen ezaugarriak ezagutu behar ditu, apustuen terminaletan beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izateko.

Gainera, beste garapen informatiko batzuk daude, hala nola online apustularien pasabidea jokoa lege eskakizun berrietara egokitzea, udalen formularioak aldatzea jokoa atalarekin egin beharreko izapideetan, iraungitzeko extr@espedienteak kudeatzeko modulua joko makinen kokalekua jakinarazteko edo Nafarroako joko eta apustuen erregistroko Gobernu Irekiaren esteka espezifikoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikulua betetz.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

## 11-23/PES-00172. Galdera, Iruñean emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena izanen lukeen bigarren epaitegi bat sortzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iruñean emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena izanen lukeen bigarren epaitegi bat sortzeari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00172). Hona hemen Nafarroako Gobernu Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Iruñean emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eskuduna den bigarren epaitegi bat sortzeari buruz eman dion informazioa:

2023ko azaroaren 28an, bilera bat egin zen Agoizko Udalak hala eskatuta, Justizia Zuzendaritza Nagusi honetan, Iruñeko barruti judizialean —eta ez Agoizkoan— emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan eskuduna den bigarren epaitegi bat sortzearen harira EH Bilduk eskatu dituen gai berdinen berri emateko.

Aipaturiko epaitegia Justizia Ministerioaren agindu bidez BOEn argitaratzeko zain dago eta hori datozen egunotan gertatuko da, ohikoa den bezala, izan ere, aurreikuspenen arabera, 2024ko urtarilaren 31an sartuko da indarrean; baina gai

hori aipaturiko Ministerioaren mendeko kontua da erabat.

Horren sorrerak ez du aldaketarik ekarriko Agoizko epaitegientzat, honelako kontuekin loturiko salaketa kopuruaren murrizketa baino. Martxan jartzen den momentutik aurrera, salaketak Iruñean jarriko dira eta ez da auzigai gehiagorik sartuko Agoitzen, eta azken honek lehen auzialdiaren berezko demandei eta instrukzio epaitegien berezko salaketei eta kereilei dagozkien izapideekin jarraituko du. Horrek nabarmen murriztuko du lan karga eta, horri esker, Agoizko Udalak ohiko liskar maila berreskuratuz joan ahalko da, izan ere, gaur egun nahiko gainezka daude.

Agoizko barruti judizialek Iruñekora egindako aldaketa egitea justifikatu duten arrazoiak honako hauek dira: Iruñetik gertu dauden udalerrietan bizi diren emakume asko Agoitzera (Sarriguren, Noain, Uharte...) mugitu behar zirela. Horrela, askoz errazago jo dezakete Iruñeko Epaitegira, salaketa jartzeko eta dagozkion izapide judizialak egiteko.

Epaitegia Iruñean sortzea onetsi da, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren zein Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren beraren eta Justizia Ministerioaren aldeko txostenarekin. Gai horri dagokionez, Zuzendaritzak Ministerioan adostutakoa beteko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 27an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

## **11-23/PES-00173. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiei buruz erabiltzaileek egiten duten balorazioari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiei buruz erabiltzaileek egiten duten balorazioari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin

du, erabiltzaileek Nafarroako errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiez egiten duten balorazioari buruz (11-23/PEI-00173). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak “Zer balorazio egiten dute erabiltzaileek Nafarroako errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiez?” galderari buruz eman dion informazioa:

Ezin da helarazi erabiltzaileek Nafarroako errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiez egiten duten balorazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

---

## **11-23/PES-00174. Galdera, garraio publikoaren emakida berrietan bidaiari kopurua igotzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, garraio publikoaren emakida berrietan bidaiari kopurua igotzeari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, garraio publikoaren emakida berrietako bidaiari

ri kopuruaren gehikuntzari buruz (11-23/PEI-00174). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak “Zer gehikuntza egon da (halakorik egon bada) Nafarroako errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berrietan?” galderari buruz eman dion informazioa:

Ezin da alderaketa egin aurreko emakidak erabiltzen zituzten bidaiarien eta gaur egungo emakidak erabiltzen dituzten artean, emakiden konfigurazioa desberdina baita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## **11-23/PES-00175. Galdera, ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruzkoa. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, bidaiarien garraio-zerbitzuak ibilgailu gidaridunak alokatzearen bidez emateko baldintzak arautzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruz (11-23/PEI-00175). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak "Zergatik ez da onetsi Nafarroako Foru Komunitatean ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldin-

tzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektua?" galderari buruz eman dion informazioa:

Beharrezkotzat jotzen dugu lehenik eta behin ibilgailu gidaridunak alokatzeari buruzko bi galderak erantzun daitezela, izan ere, eragina izan dezakete horien arauketan.

Gaur egun, Auzitegi Gorenak epai bat emateko zain daude, ibilgailu gidaridunak alokatzeko baimenak emateko proportzionaltasun arauari buruzko (hogeita hamar taxi lizentzietatik bat) nazio mailako araudiaren harira (Lurreko Garraioak Antolatzeari buruzko Legearen 48.3 artikulua). Bestalde, epaitegiek ibilgailu gidaridunak alokatzeko zerbitzuak kontratatzeke baldintzen araudia errekurritu eta baliogabetu dute. Araudi hori beste autonomia erkidego batzuetan onetsi da eta, besteak beste, zerbitzuak kontratatzeke gutxieneko aurrerapena arautzen du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago